



ENERGIA BERRIZTAGARRIEI BURUZKO INFORMAZIO-FITXAK

				
<p><u>Energia geotermikoa</u></p>				
Lorbidea	Abantailak	Eragozpenak	Ingurumen inpaktua	Sortutako energia-kantitatea
<p>Lurraren barrualdetik askatzen den beroak lurpeko ura berotzen du. Ateratzen den lurruna elektrizitatea sortzeko aprobetxa daiteke turbinetara konektatutako sorgailuen bidez, turbina horiek lurrinari esker biratzen baitute.</p>	<p>Doakoa da eta egun osoan dago erabilgarri.</p>	<p>Munduko leku batzuetan baino ez dago eskuragarri. Batzuetan gas toxikoak isurtzen dira.</p>	<p>Lurruna turbinetara bideratzen duen beharrezko makineria instalatzeak ingurumen inpaktua eragin dezake. Esaterako, errepideak, besteak beste, nahitaezko azpiegiturak izango dira eraikuntza-materialak garraiatzeko, eta ekipamenduak berak lur-eremu handi bat hartuko du.</p>	<p>Energia geotermikoko instalazio bakar batek 20 etxebizitzatarako nahikoa elektrizitate sortzen du.</p>
				
<p><u>Eguzki-energia</u></p>				





Lorbidea	Abantailak	Eragozpenak	Ingurumen inpaktua	Sortutako energia-kantitatea
Eguzkiaren energia bi modutara aprobeztatzen da: 1) Eguzki-panelak berotuz; eta horiek, aldi berean, ura berotzen dute. 2) Eta eguzki-zelulen bidez, zeinek argiaren energia elektrizitate bihur baitezakete.	Eguzkiaren energia doakoa da, hodeirik ez badago, betiere.	Eguzki-panelek eguzkiaren argia behar izaten dute etengabe, energia baterietan biltegiratu daitekeenean izan ezik. Eguzki-zelulak garestiak dira.	Inpaktu txiki bat eragin dezake, eguzki-zelulek hedadura handia behar izaten baitute (gutxi gorabehera 2 m ² zelula bakoitzeko).	Zelula fotovoltaiko bakar batek 5 etxebizitzatarako nahikoa energia ematen du.



Energia eolikoa

Lorbidea	Abantailak	Eragozpenak	Ingurumen inpaktua	Sortutako energia-kantitatea
Haizeak helizeak mugitzen ditu, eta horiek, aldi berean, turbina bat, elektrizitatea sortzen duen sorgailu bati konektatuta dagoena.	Haizeak jotzen duen bakoitzean, elektrizitatea sor daiteke.	Energia kantitate handi bat ekoiztu nahi bada, turbina kopuru handi bat beharko da baita ere, eta turbina horiek errentagarriak izan daitezen, leku haizetsuetan kokatu beharko dira nahitaez (mendixketan edo	Turbina eolikoak instalatzeak zarata eta hegaztiak arriskuan jartzea dakar. Esaterako, saguzarrak bereziki kaltetuak izaten dira turbinek eragindako presio-aldaketan ondorioz.	Bi turbina eolikok 15 etxebizitzatarako energia nahikoa ematen dute.



		kostaldetik hurbil dauden lekuetan).		
<div style="display: flex; align-items: center; justify-content: center;">  <div style="margin-left: 20px;"> <h2 style="color: #0070c0; text-decoration: underline;">Energia hidroelektrikoa</h2> </div> </div>				
Lorbidea	Abantailak	Eragozpenak	Ingurumen inpaktua	Sortutako energia-kantitatea
Ur ibilia ibaitik lortzen da, eta horrek ur-errotak edo turbina bat mugituko ditu, eta horiek sorgailu batera konektatuta egongo dira elektrizitatea sortzeko.	Euri-hornidura onak badaude, beti egongo da nahikoa ur elektrizitatea sortzeko.	Egokia izaten da ibaiak dituzten eremu menditsuetarako.	Ingurumen-inpaktua sortzen da ibaiak desbideratzen baitira. Horrek eremu horretako ekosistema edo inguruko lursailen emankortasuna hondatu dezake.	Instalazio hidroelektriko bakar batek 40 etxebizitzatarako nahikoa elektrizitate sortzen du.
<div style="display: flex; align-items: center; justify-content: center;">  <div style="margin-left: 20px;"> <h2 style="color: #0070c0; text-decoration: underline;">Marea-energia</h2> </div> </div>				
Lorbidea	Abantailak	Eragozpenak	Ingurumen inpaktua	Sortutako energia-kantitatea
Hesi edo dike bat jartzen da estuario batean zehar (ibai emaritsu baten itsasorako bokalean). Mareako ura hesian dauden zulo batzuetatik	Marea dagoen bakoitzean, elektrizitatea sor daiteke.	Dikeak eraikitzeak kostu handia du.	Dikea eraikitzeak ibaiertzainoko ur-emaria eten dezake, eta, beraz, baita elikagaien eta organismoen	Hesi bakar batek 25 etxebizitzatarako nahikoa energia ematen du.



igarotzen da, eta horrek sorgailu bati konektatuta dagoen turbina bat bultzatzen du, eta sorgailu horrek elektrizitatea sortzen du.			mugimendua eta arrain jakin batzuen migrazioa ere.	
---	--	--	--	--



Uhinen energia

Lorbidea	Abantailak	Eragozpenak	Ingurumen inpaktua	Ekoiztutako energia-kantitatea
Buiak itsasoan jartzen dira, eta olatuen mugimendua mugimendu bertikal bihurtzen dute buiaren barruan, turbina bati konektatuta baitaude; turbina horrek, era berean, elektrizitatea sortzen duen sorgailua bulkatzen du.	Olatuak dauden bakoitzean, elektrizitatea sor daiteke.	Buia kopuru handia behar da hiri oso baterako elektrizitate nahikoa sortzeko. Teknologia mota hori olatu handiak daudenean soilik izango da errentagarria.	Inpaktu minimoa sortzen da; itsasoan buia asko egon behar dira inpaktua sortzeko.	Hamar buiek 10 etxebizitzatarako nahikoa elektrizitate ematen dute.



Biomasa

Lorbidea	Abantailak	Eragozpenak	Ingurumen inpaktua	Ekoiztutako energia-kantitatea
Materia organiko solidoen (egurra, simaurra, azukre-	Landareak etengabe	Errekuntzak karbono dioxidoa eta beste	Errekuntzak sortutako poluzioa.	Instalazio sorgailu bakar batek nahikoa



kanabera) errekontzak sortutako beroa lurrina sortzeko erabiltzen da, eta lurrin horrek elektrizitatea sortzen duen sorgailua bulkatzen du.	hazten dira, eta, beraz, baliabide berriztagarria dira.	kutsatzaile batzuk sortzen ditu.		elektrizitate sortzen du 25 etxebizitzatarako.
 Biogasa				
Lorbidea	Abantailak	Eragozpenak	Ingurumen inpaktua	Sortutako energia-kantitatea
Landareak eta simaurra andel batean deskonposatzen dira. Metano gasaren errekontzak sortutako beroa lurrina sortzeko erabiltzen da, eta lurrin horrek sorgailu bat bulkatzen du elektrizitatea sortzeko.	Hondakin naturalak erabiltzen dira.	Errekuntzak karbono dioxidoa eta beste kutsatzaile batzuk sortzen ditu.	Errekuntzak sortutako poluzioa.	Instalazio sorgailu bakar batek nahikoa elektrizitate sortzen du 20 etxebizitzatarako.

